

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

**EDUCACION**

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

## Nafarroako Gobernuak Haur eta Lehen Hezkuntzako 19 ikastetxe publiko hobetzeko obrak finantzatzeko ditu

*Obrak 627.617 eurokoak dira eta Gobernuak, batez beste, zenbateko horren %64 ordainduko du*

Martes, 06 de agosto de 2013

Nafarroako Gobernuak 400.000 euro jarriko ditu udal-eraikinetan dauden Haur eta Lehen Hezkuntzako hemeretzi ikastetxe publiko hobetzeko eta birmoldatzeko aurten egingo diren lanetarako.

Obrak 627.617 eurokoak dira eta Gobernuak, batez beste, zenbateko horren %64 ordainduko du.

Diru-laguntzak herri hauetako Udalek jasoko dituzte: Altsasu ( 10.761,53 euro), Andosilla (744,70 euro), Baztan (21.653,64 euro), Beriain (3.300 euro), Berriozar (10.156,30 euro), Auritz (68.806 euro), Burlata (10.862,60 euro), Cabanillas (5.649,09 euro), Carcar (20.570 euro), Irurtzun (66.806,87 euro), Lesaka (83.822,01 euro), Noain (50.000 euro), Obanos (38.007 euro), Gares (78.111,07 euro), San Adrian ( 21.487,60 euro), Tuteria (4.382,63 euro), Ultzama (31.711,17 euro), Urdiain (64.514,88 euro) eta Atarrabia (36.270,20 euro).

Zenbateko horren gehiena (270.047,61 euro) erabiliko da teilatuak birgaitzeko eta egokitzeko, eta gainerakoa fatxadak eta eraikinen oinarriak konpontzeko (50.000 eta 38.708,93 euro, hurrenez hurren), berokuntza-instalazioak berritzeko (26.921,46 euro) eta patioak eta beste leku batzuk iragazgaizteko (14.322 euro).

Obrak, [592/2013 ebazpenaren](#) arabera, uztailaren 30a baino lehen hasi behar dira, salbu geroratzea baimentzen bada, eta aurtengo azaroaren 1erako amaitu.